

3. GAIA: KONSTITUZIOA

3.1. KONSTITUZIOAREN PRINTZIOAK ETA ERALDAKETA

1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

- Helburuak:
 - 1812ko hasitako tradizio luze baten jarraipena ematea
 - Estatuaren egitura politikoaren funtsezko elementuak lege-testu batean ordenatzea
- Egitura formala:
 - Hitzaurrea
 - Titulu preliminarra (1-9 Art.)
 - Titulu dogmatikoa (I) (10-55 Art.)
 - organiko (II-X) (56-169 Art.)
- Egitura materiala:

2. ESKUBIDE SOZIALAK (1.1 art)

- Eskubide sozialen eraginkortasuna ez da bera. Garapen legegile diferentea dute eta batzuk aitorten konstituzionala dute.
 - I Titulua: hezkuntza eskubidea (27); greba eta sindikazio eskubidea (28), lan egiteko eskubidea (35), lan hitzarmen eta negoziatorako eskubidea (37), familiaren babeserako eskubidea (39), errenta eta enplegua banatzeko politika (40), etxebizitza eskubidea (47), gazteriaren aldeko politikak (48), gutxitu fisiko-psikikoen aldeko politikak (49), zahartzaro pentsioak (50).
 - VII Titulua: interes orokorra (128), jarduera ekonomikoaren planifikazioa (131.1); kontseilu ekonomiko eta soziala (131.2).
 - 9.2 artikulua: berdintasun materiala.

3. MONARKIA PARLAMENTARIOA (1.3 art.)

- Espainiako estatuaren forma politikoa (gobernu forma) **monarkia parlamentarioa** da.
 - Regionala eta estatu autonomikoa ere bada estatua
- **Gobernu era ⇒ monarkia parlamentarioa.**
 - Erregeak EZ du botere exekutiborik.
 - Estatu-burua da, baina ez du prozesu politikoan parte-hartzen; ezin du Estatuaren zuzendaritza eskua sartu. (ezin da presidentea izan)
- Gobernua Parlamentuaren menpeko.
- Konstituzioak titulu oso bat dedikatzen dio Koroari, bigarrena (56-65 artikulua).
- “Bere zilegitasuna demokratikoa da, ez historikoa”.

4. AUTONOMIEN ESTATUTUA (2.art.) Nolakoa den espainia

- Konstituzioak Espainiako **nazioaren batasun ezin hautsizkoan** hartzen du oinarri (nazioa ezin dela banatu), hura izanik espainiar guztien aberri erkide eta **banaezina**, eta era berean aitortzen eta bermatzen du Espainia osatzen duten **nazionalitate eta eskualdeen autonomia-eskubidea** eta haien arteko **elkartasuna**.
- Espainia lurraldetasunaren ikuspegitik antolatzeke bi ideia:
 - 1.- Nazio bateratua da.
 - 2.- Nazionalitate eta eskualdeen autonomia eskubidea bermatu (komunitate autonomikoak onartuta)
- **Estatu era ⇒ autonomia-eskubidea** baina batasun printzipioan oinarrituz.
- EK VIII. Titulua (56-65 art.).
 - Eredu autonomikoa “irekita” utzi zen, beti ere Espainiaren batasuna muga bezala, eta autonomien federazioa debekatuz.

- Oinarrizko elementuak
 - Entitate autonomo bezala eratzeko nazionalitate eta erregioen eskubidea.
 - Autonomiara iristeko bideak: azkarra eta mantsoa.
 - Autonomia-eskubidea martxan jartzeko prozedurak definitzen dira.
 - Ez da zehazten zeintzuk diren erkidego autonomoak.

5. ZURRUNTASUN KONSTITUZIONALA ETA KONSTITUZIOA ERREFORMATZEKO PROZEDURA

- Konstituzioen zurruntasuna ⇒ erreformarako prozedura indartuen ezarpenari erreferentzia egiten dio. Botere konstituziogilearen nagusitasuna adierazten du. Konstituzioaren maila nagusitasun hori babesteko, konstituzionaltasuna kontrolatuko duen sistema bat eratzen da. Botere publikoen edozein ekintza konstituzioaren aurkakoa izatea ekiditen du sistema honek.
- EK 167 eta 168 artikulua.
 - Berrikuspen osoa: Zer da berrikuspena? Noraino hel daiteke? (konstituzio bertako artikuluen berriztapena)
 - Mugak: “superkonstituzioa” eta 168. artikulua bera
 - Bi hauei eragingo balie konstituzio iruzur baten aurrean geundeke.
 - Aldatu ez daitezkeen Konstituzio atalak (cláusulas pétreas).
 1. **Erreforma arrunta ala partziala (167. Artikulua)**
 - EK 167.1 Konstituzioa aldatzeko proiektuak Ganbara bakoitzeko bosteko hiruk onartu beharko ditu. Biotan akordiorik ez baldin bada, lortzeko ahaleginduko da Diputatu eta Senatoreen batzorde konposaketa berdina sortuz, beronek testu bat aurkeztuko du biltzarreak eta Senatuek botatuko dutena.
 2. **Erabateko berrikuspena (168. Artikulua)**
 - 168. 1. Konstituzioaren berrikuste osoa edo zatikakoa proposatzen denean, aurreko Titulua, bigarren kapitulua, I. Tituluko lehen Saila, edo II. Titulua ikutuz, printzipioaren onartzera joko da. Ganbara bakoitzeko hirutik bi, eta Gorteen berehalaxeko deuseztatzen.

- Prozedura berezia NOIZ?
 - Konstituzio osoa berritzen denean
 - Hurrengo atalak ukitzen direnean:
 - Atariko titulua (EK 1-9 art)
 - I. Tituluko II Kapituluaren lehen atala (EK 15-29 art): oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak
 - II. Titulua (EK 56-65 art): Koroa

6. KONSTITUZIOAREN ERALDAKETA

- Ezaugarriak: egonkortasuna eta iraunkortasuna

Konstituziok iraupen asmoa du: Berak zehazten ditu eutsi nahi zaion estatu egiturari dagozkion oinarriak, dena delako alderdi politikok gobernatzen duelarik. Iraupen asmoa duen estatu egitura adierazten du.

Bereizketa egiten da Konstituzioak adierazitakoa aldatzeko prozeduraren eta beste edozein lege sortu eta aldatzeko prozeduren artean
- Aldaezinak: Badira konstituzioan aldaezinak diren zenbait gako. Gako horiek, sistema politikoa egituratzen duten oinarrizko elementuak dira. Hots, monarkia parlamentarioa gobernu formatzat duen zuzenbide estatu sozial eta demokratiko izaera ematen diotenak.
 - Monarkia parlamentarioa (EK 1.3 art)
 - Zuzenbide- estatu sozial eta demokratiko izaera (EK 1.1 art)
- Aldatzeko prozedurak: X. Tituluan (EK 166-169) ⇒ Konstituzioa erreformatzeko bi prozedura arautzen ditu: prozedura arrunta eta prozedura berezia. Prozedura berezia nahitaezkoa da Konstituzio osoa berritu nahi denean edo aldaketak honako atal hauetako bat ukitzen duenean:
 - Aurre izenburua
 - I. Tituluko Bigarren Atalburuaren Lehenengo Sekzioa (**Funtsezko eskubideak**)
 - II. Titulua (**Koroa**)

- **Prozedura arrunta (167 art) eta berezia (168 art)**

Prozedura arruntaren eta bereziaren artean, bi ezberdintasun nabari daude: lehenengoa, prozedura bereziak parlamentuan adostasun-maila handiagoa eskatzen duela; eta, bigarrena, legebiltzarrak aldaketa onartu eta gero, Konstituzioren aldaketa hori erreferendum baten bitartez sendotu behar dela

Konstituzio-eraldaketa motak	
<u>Eraldaketa arrunta</u>	<u>Eraldaketa berezia</u>
<ul style="list-style-type: none"> • Bi garbaretan 3/5ak <ul style="list-style-type: none"> – Lortzen ez denean <ol style="list-style-type: none"> 1) batzorde mistora; 2) edo Seratuan EG + Kongresuan 2/3 • <u>Erreferenduma</u>, hautazkoa, baina loteslea 	<ul style="list-style-type: none"> • 2/3ak garbara bietan • <u>Gorte disolbaketa</u> + hauteskundeak • Gorte berrien 2/3ak • <u>Erreferenduma</u>: demigorrezkoa eta loteslea

3.2. KONSTITUZIOA ARAU JURIDIKO BEZALA

1. KONSTITUZIOA ARAU JURIDIKO BEZALA

- XX. mende hasieran indartu ziren konstituzioak, itun konstituzionalari arau-izaera eman zitzaionean. Aurrekoak dokumentu politikoak ziren soilik, baina pixkanaka, konstituzioa legetzat ulertzen hasi ziren (arau juridiko)
- Konstituzioei arau-izaera emateari juridiko bilakatzea esaten zaio. Eta horrenbestez, botere publikoek (batez ere auzitegiek) aplikatu behar duten arau bat.
- Konstituzioa legetzat ulertzen hasi ziren
- Oinarrizko legea edo legeen legea ⇒ lege guztien gainetik zegoen legea.

2. LEGEEN LEGEA

Konstituzioan bilduta dauden aginduek, bestelako zuzenbide iturriek baino arau maila handiagoa dute. Hierarkia lehentasuna du beste legeekiko.



3. OINARRIZKO LEGEA: KONSTITUZIOA (5 IDEIA)

- Estatu botereak antolatzeko eta mugatzeko forma juridikoa (ez bakarria, idatzizko konstituziorik gabeko herrialdeak baitaude)
- Estatu botereen **iturri** da.
- **Berdintasun printzipioak** garrantzi zentrala (berdintasun formala eta materiala)
- **Hitzarmen sozialaren** adierazpena. Zertarako? Segurtasun politikoa eta juridikoa lortzeko.
- **Estatu konstituzionala:** botere politikoa antolatzeko sortzen den egitura juridiko politikoa

4. TIPOLOGIA

- Zeintzuk dira konstituzio mota ezberdinak? (kontzepzioak)
 - Arrazional-araukorra (concepto racional normativo de Constitución)
 - Guretzako garrantzitsuena
 - Espainiak jarraitzen duena
 - Bi ezaugarri:
 - Arau sistema bat da: konstituzio idatzia, dokumentu bakarrena, subiranotasun despersonalizatua, gizarte hitzarmenaren ondorioa, printzipio arrazionaletan oinarritua, araukorra, eta zurruna erreformatzeko.
 - Estatu liberalarekin bat egiten duen ikuskera: eskubide indibidualen bermea eta botereen mugaketa.
 - PEREZ ROYO: “La Constitución racional normativa es el resultado de combinar un elemento formal y otro material. Formalmente, tiene que ser un producto de la sociedad, creado por ella misma, y no una norma que se le impone sin su consentimiento. Materialmente, la Constitución tiene que permitir a la sociedad auto-dirigirse políticamente de manera permanente. La sociedad no solamente debe ser libre en el momento de aprobar la Constitución, sino que debe continuar después de manera indefinida”.
 - Adibidez: AEB eta Frantziako tradizioetik eratorritakoa dena.
 - Tradizionalista-historikoa ⇒ konstituzioa herri baten tradizioen emaitza izango da.
 - Soziologiko-marxista ⇒ Konstituzioa gizartearen izate errealearen irudia da. Nolako jendartea, halako konstituzioa.
 - Kontzepzio autoritarioa ⇒ nagusitasun egoeran dagoenak ezarritako erabaki unilaterala. Diktadura.

5. EGITURA (Hiru zati nagusi ditu)

- Atal ideologikoa / Hitzaurrea: Konstituzioaren helburuak jasotzen dira (baloreak, subiranotasunaren jabea...).
- Atal dogmatikoa: baloreak, printzipio konstituzionalak eta eskubide zein askatasunak
- Atal organikoa: estatu botereen antolaketa
 - Botereen organoak ezartzeko eta arautzeko arauak

6. KONTUAN HARTZEKO ELEMENTUAK

• Interpretazioa

- Arau juridiko guztiak (k. ere) interpretatzen dira
- Legea eta konstituzioa interpretatu
 - Epailleak legea interpretatzen du eskuartean duen auzia konpontzeko.
 - Auzitegi konstituzionalak legegileak egindako konstituzioaren interpretazioa kontrolatzen du ⇒ Konstituzionaltasun kontrola
- I. juridiko/ konstituzionalaren erregelak (berdinak)
 - Hitzez-hitzeko interpretazioa
 - Sistematikoa (alboko arauak aintzat hartuz, sistema)
 - Historikoa (arauaren jatorriari erreparatzen diona)
 - Teleologikoa (helburuari erreparatzen diona)
 - Soziologiko-ebolutiboa: errealitate sozialaren aldaketari erreparatzen diona. Sozietatea eboluzionatzen ari da, "ezkontzaren adibidea gogoratu".

• Konstituzio erreforma

Konstituzioa zurruna izateko arrazoia ⇒ oposizioa boterera iritsiko balitz, ez aldatzeko erabat gizartea

- Erreforma arrunta ala partziala (167. Artikulua)
- Erabateko berriskuspena (168. Artikulua)

- **Konstituzionaltasun kontrola**

- AEBetako sistema (difusoa) ⇒ edozein epailek kontrolatzen ditu legeak (un poco de caos)
 - 1787ko Konstituzioak ez zuen ezer esaten gaiari buruz, baina eztabaida konstituzionalean, legeak konstituzionalki kontrolatzeko beharra azpimarratu zen. (etxean ere berdin gertatzen da, “bestela 5etan bueltatuko nitzateke”)
 - Marbury Vs Madison sententzia. Lege batek konstituzioaren aurka egiten badu, inaplikatu egingo da.
 - Kontrol difusoa
 - Edozein epailek egiten du
 - Jurisprudenzia sortzen du (jurisprudenzia: epaitegiek euren epai eta ebazpenetan osatzen duten doktrina juridikoa da)
- Legeen ko. kontrola Europan (XX. Mendeko sistema kontzentratua): Konstituzio Auzitegia ⇒ Kelsenek sortu zuen